



## PRENTSA OHARRA

---

# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK BIHAR, OSTIRALA, KOLDO MITXELENA KULTURUNEA BERRITZEKO OBRAK HASIKO DITU, ESPAZIO ETA ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEKO

- **Goizane Álvarez:** "KMK eraikinak espazio eta zerbitzuetan irabaziko du, jendeak instalazio erosoagoak izan ditzan".
- **Azahara Domínguez:** «Proiektu hau esku-hartze garrantzitsu bat da; eraikina itxi behar da irisgarritasun-araudia betetzeko, eta azpiegiturak eskaintzen dituen zerbitzuen eskaintza egokitzeko aukera ere emango du, eguneratuz eta hobetuz".
- **José Ignacio Asensio:** "Energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak Europak markatzen dizkigun lehentasunak dira, eta estrategikoak dira emisioak murrizteko, aurrezpena sustatzeaz gain. Jasangarritasun Departamendutik egingo ditugun energia-birgaikuntzako jardueri esker, %20 murriztuko da Koldo Mitxelenaren energia-kontsumoa, eta beraz, 30.000 € aurreztuko dira foru-kutxetan".

Gipuzkoako Foru Aldundiak bihar, ostirala, irailak 15, hasiko ditu Koldo Mitxelena Kulturunea berritzeko lanak. Lan horiek 21 hilabeteko iraupena izango dute, eta aurreikusita dago 2026ko udaberria baino lehen amaitzea. Astigarragako eta Lasarteren arkitektura-proiektuari jarraituko zaio, eta 8,4 milioi euroko aurrekontua izango du.

Goizane Álvarez Kultura, Kooperazio, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak ziurtatu duenez, obrei esker Koldo Mitxelena Kulturunea "erreferentziatzko" kultura-zentroa izaten jarraituko du, baina, batez ere, "erabiltzaileek merezi duten" zentroa. Beraz, hiru hamarkadatan funtzionatu ondoren, esku-hartze hori beharrezkoa da. Gaur goizean kulturunean egin den prentsaurrekoan, Álvarez Azahara Domínguez Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatuarekin eta arkitektura-zerbitzuko foru arduradunarekin, eta José Ignacio Asensio Jasangarritasuneko diputatuarekin batera agertu da, eta esan du "berritzeko" proiektu hau "saihestezina" dela, eraikinaren arazo "estruturalei" erantzuna ematen dielako, eta irisgarritasunari eta iraunkortasunari buruzko nahitaezko "araudia" betetzen duelako. Beraz, adierazi duen bezala, "aldaketa nabarmena izango da".

Jakitun da obrak eragozpen bat izan direla bertara hainbat jardueratan parte hartzera joaten ziren pertsonentzat, hala nola erakusketetan, hitzaldietan eta proiektioetan, bai eta liburutegira joaten direnentzat ere, liburuak kontsultatzeko edo ikasteko; hala ere, espero du aurreikusitako denboran egin ahal izatea. Hala ere, erabiltzaileei eskatu die uler dezaten atzerapenen bat izanez gero. Ziur dago itxaronaldiak mereziko duela, zentroak espazio eta zerbitzu gehiago izango



dituelako, instalazio “erosoagoak” izango dituelako eta jendearentzat «espazio gehiago» egongo delako.

Bestalde, José Ignacio Asensio Jasangarritasuneko diputatuak esan du Trantsizio Ekologikoaren Zuzendaritzak Koldo Mitxelenea Kulturunea birmoldatzeko proiektuan laguntzen duela, ekintza “estrategiko” baten bidez. Izan ere, eraikin horrek Europako Itun Berdeak emisioak murrizteko eta neutraltasun klimatikoa lortzeko ezartzen dituen "lehentasun nagusiak" bete ditzan ahalbidetuko due, beste foru eraikin batzuetan energia eraginkortasuna indartzeko egiten den bezala.

Zehazki, departamentu horrek hiru ekintza gauzatuko ditu, 600.000 eurotik gorako inbertsioarekin Koldo Mitxelenaren energia kontsumoa murrizteko, eta %20 baino gehiago aurreztuko da, hau da, 30.000 € aurreztuko dira. Honako jarduketa hauek dira:

- Eraikin osoko argiztapenaren ordeztu Led motako argiztapen eraginkorragoa jartzea, kontsumoak murrizteko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko. Inbertsioa: 510.000 euro. Epea: 2023ko azaroa – 2024ko otsaila
- Balbula termostatiko dinamikoak instalatzea eraikineko erradiadore guztietan, eraginkortasun handiagoa lortzeko. Inbertsioa: 70.000 euro. Epea: 2024ko martxoa - maiatza
- Autokontsumorako energia berriztagarriak ezartzea, 22,5 kW-ko eguzki-instalazio fotovoltaikoa, eraikinaren estalkian, autokontsumorako. Inbertsioa: 30.000 euro. Epea: obra amaitu ondoren.

Era berean, Azahara Domínguez Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatua eta arkitektura-zerbitzuko foru arduradunak baieztatu duenez, 2017an egindako txosten arkitektoniko batean hautemandako beharretan oinarrituta, eta pandemiak ezarritako lehentasunengatik espero baino gehiago atzeratutako prozesu batekin, «oso berri ona» da bihar obrak hasia. Proiektuari A&Lk emango dio hasiera, Koldo Mitxelena Kulturunearen eraikinaren barrua dauden elementuak desmuntatuta. Esku-hartze “garrantzitsu” bat da. Eraikina ixtea dakar, eta azpiegiturak eskaintzen dituen zerbitzuen eskaintza egokitzea ere ahalbidetuko du, horiek eguneratuz eta hobetuz.

Egin beharreko esku-hartzeen artean, Domínguezek adierazi du eraikinaren estalkia berrituko dela eta azpian dauden instalazio guztiak ordeztuko direla. Alboko argi zuloak eraberritzea. Fatxadak zaharberitzea Eta honako hau ere ekarriko du: Komunikazio bertikala hobetzea, bi igogailu berri jarrita. Igogailu horiek eraikineko solairu guztiak komunikatuko dituzte, egungo araudira egokitzeko irisgarritasunari, suteen aurkako segurtasunari eta abarri dagokienez. Klimatizazioari dagokionez hobekuntzak egitea ere garrantzitsua izango da hobekuntzan.

Gainera, erabilera publikoko azalera handituko da: bigarren solairuan jendearentzako espazio berriak irekiko dira, erreserba-funtsaren lehengo kontsulta-gela jendearentzat irekiko da, 0 solairuan espazioak handituko dira patioak estalita, eta bulegoen egungo espazioaren zati bat espazio publiko bihurtuko da. Proiektuan, halaber, Ganbara aretorako sarbidea berrituko da eta komunen eraberritze integrala egingo da.